



BARREN

TOKIKOM

# Bidea amets

Leire Urkiza





# GIPUZKOAK

# BADU

## ETORKIZUNA



Zu bezalako 720.000  
gipuzkoarrei esker,

**Europar  
desberdintasun  
maila txikienetarikoak**  
duen lurraldea izan nahi du Gipuzkoak.

Gipuzkoako  
Pera Aldundia  
Diputación Foral  
de Guipúzcoa



ETORKIZUNA  
ORAIN  
Es futuro

ETORKIZUNA  
**ERAIKIZ**  
#GipuzkoarKonpromisoa

## ANE ASTIAZARAN

## Itzultzailea



## Zer da euskaraz behar duguna?

gai inportanteetarako” delako ideia hori.

Hori baieztatzen du, esate baterako, egun euskal telebistan dagoen umorezko programa bakarrenetako bat (bakarra ez bada) kendu izanak. Barre libreak gai serioagoak edo ohikoagoak izango zituen hizpide, baina umorea euskaratik eta euskaraz egitea zuen helburu. *Larrugorritanen* aurkezpenean aktoreetako batek aipatu zuen bezala, bada garaia ondo pasatzea helburu duen euskarazko aisia sortzeko, pentsaraztea albo batera utzi gabe, gustuko izango ditugun produktak eta proiektuak sortzeko.

Arraroa iruditzen bazaigu ere, pasa den asteburuan elgoibartarren ahotan

egon zen erronka litzateke behar ditugun proiektu horietako bat. Kuadrillako apustu zena herrian zabaldu eta euskara hutsez eginiko ekimenak izan zen guzti hartatik irten zena. Askotan galdetu izan diogu gure buruari zein den gazteak euskalgintzara hurbiltzeko modua, eta ez dago formula magikorik, aisia sortu behar dugu euskaraz, euskara erdigunean izan ez arren nahitaezko tresna izango duena, gazteengandik sortuko dena, eta emaitza euskaraz eginiko ekimen erakargarria izango duena.

Beste behin, argi geratu da instituzioek aukerak kenduta ere, herritik euskarari aukerak ematen zaizkiola, eta hori errealia bezain ederra dela.

Behin baino gehiagotan aipatu den kontua da euskara gai serioetarako erabiltzen den hizkuntza dela, euskara hizkuntza gutxitua izanik, hil ala biziko gaiei buruz aritzeko soilik balioko balu bezala. Jakin badakigu hori ez dela horrela, askok eta askok egunerokotasunean erabiltzen dugun tresna dela, eta hil ala biziko gaiez eta gai hutsalez ere aritzen garela euskaraz. Hala ere, imaginario kolektiboaren parte da “euskara

*“Argi geratu da instituzioek aukerak kenduta ere, herritik euskarari aukerak ematen zaizkiola eta hori errealia bezain ederra dela”*



BARREN

ARGITARATZAILEA:

ELGOIBARKO IZARRA  
Euskarazko Topagunea

Aita Agirre Kulturgunea, 3, 3. ezk. - 20870 ELGOIBAR

943 744 112

Publizitatea: 943 743 704

barren.publi@elgoibarkoizarra.eus

barren@elgoibarkoizarra.eus

www.barren.eus

BARREnek bere gain hartzen du espazio arazoengatik iragarkiak lekuz aldatzeko eskubidea. BARREnek ez du bere gain hartzen Iritzia, Hitz eta klik eta eskutitzak ataletan adierazitako enantzikizunik. **KOORDINATZAILEA** Ainhoa Andonegi **KAZETARIAK** Ainhoa Andonegi, Asier Orbea, Ainara Argoitia **HIZKUNTZA ARDURADUNA** Ainara Argoitia **PUBLIZITATEA** Leire Rubio **MAKETATZAILEA/DISEINATZAILEA** Zalaa Arnaiz **ATARI DIGITALEKO ARLO TEKNIKOAREN ARDURADUNA** Aitor lauzirika **ADMINISTRARIA** Amaia Arrizabalaga **KOLABORATZAILEAK** Eire Vila, Manu Sanchez, Iosu Juaristi, Iñigo Lamelas, Edurne Izagirre, Paula Heras, Enez Ezenarro, Ane Astiazaran, Irati Agirreazaldegui, Jone Olaizola, Juan Luis Mugertza, Izaro Etxegibel, Iñigo Otaño, Iñaki Goitia, Jose Ramon Cabrera, Alex Segade, Ane Kortaberria, Sara Iriondo, Asier Guisasaola **INPRIMATEGIA** Gertu Koop.E. **TIRADA** 4.885 ale **LEGE GORDAILUA** SS-1.038/92 ISSN 1138-1855

BABESLEA:



LAGUNTZAILEAK:



Gipuzkoako Foru Aldundia

BARRENEK ez du bere gain hartzen IRITZIA eta ESKUTITZAK ataletan adierazitakoen erantzukizunik. Eskutitzak ondo identifikatuta egon behar dute. Ez ahaztu izen-abizenak, NANa eta telefonoa jartzea. Bidali helbide honetara: [barren@elgoibarkoizarra.eus](mailto:barren@elgoibarkoizarra.eus)

▶ **BESTE URRATS BAT**

Duela gutxi jakin dut Elgoibarko Udalak Pedro Mugurutzaren etorbideari izena aldatzeko partaidetza prozesua hasiko duela irailan. Udalean ordezkaturik dauden alderdi politiko guztien adostasunarekin hartu da erabakia. Berri ona! Elgoibarren memoria historikoaren Legea betetzeko beste urrats bat emango da kale honi izena aldatzean. Eskerrik asko beraz, herritarroi aukera hau emateagatik.

A.Z.

BARRENEan edozein gutun argitaratu ahal izateko, honako baldintza hauek bete beharko ditu nahitaez:

1. Eskutitz guztiek identifikatuak egon behar dute: izen-abizenak, telefono zenbakia eta NAN zenbakia derrigorrezkoak dira.
2. 1.500 karaktere izan behar ditu gehienez eskutitzak.
3. Eskutitzak izen-abizenen inzialekin edota izen-abizenekin argitaratuko dira. Ezizenarekin ezingo dira sinatu gutunak. Onartu egingo ditugu identifikagarriak diren taldeak: "Ikastolako irakasleak", esaterako. Bestalde, sinatzailearekin batera beste lagun batzuk ere daudenean, hauek ere identifikatuta egon behar dute.
4. Pertsona eta erakundeek gutun-egilearen izen-abizenak jakiteko eskubidea izango dute gutun horretan euren izena aipatu edo erreferentziaren bat egiten bada eta gutuna inzialekin sinatuta badago.
5. Ez dira onartuko: biraok, gutun iraingarriak eta errespetu faltaz idatzitakoak, buzontzako edo kale banaketa egiteko idatzitako idazkiak, pertsona eta erakundeetara zuzenduriko mehatxuak...
6. Ez dugu gazteleeraz datarren eskutitz argitaratuko.

ESKUTITZEI BURUZKO ARAUDIA

**KIMA BIOESTEKA**

**Makillaje-zerbitzua!**  
Orain ere idama ileapaindegian.

Hitzordua hartzen: 646 563 706

Urazandi 9, behea - Elgoibar - [www.kimabioesteka.webkaibax.com](http://www.kimabioesteka.webkaibax.com)

**LAGUNAK**  
colchonería textil hogar

**JVR udako edredoak**

**JVR beti zure etxea inspiratzen**

**Oheko arropa, haurrentzako oheak eta gortinak.**

San Roke kalea, 20 - Elgoibar - 943 744 457 - 685 756 978  
[www.textillagunak.com](http://www.textillagunak.com)

**EXPRESS ESKAINTZAK!**

**ONTZI GARBIGAILUA AEG FFB63700PW**

**579 €**

**A T G D**

- Mahai tresnetarako hirugarren erretilua.
- 7 programa.
- 15 zerbitzu.
- 5 temperatura.

**MILARBIRE**

Ubitarte, 11 - 943 741 487 - [bire@milar.es](mailto:bire@milar.es)  
Dendako prezioak. Produktuak agortu arte





Zuen kexak, galderak edo txaloak bidaltzeko: [barren@elgoibarkoizarra.eus](mailto:barren@elgoibarkoizarra.eus) - 943 744 112 - 688 634 044



**A** iastiako baserri bide batean zulo handia dago: "Aiastiako baserri bide batean lurra zulatu egin da, eta gutxienez metro bateko sakonera duen zuloa dago orain. Konoekin seinalizatu dute, baina haizeak kono horiek mugitu egiten ditu, eta oharkabean pasa daiteke zuloa. Jende asko ibiltzen da eta norbait erortzeko arriskua dago. Jakin nahi nuke noiz konponduko duten zulo hori. Hirigintza Saitetik jakinarazi dute dagoeneko hasita daudela zuloa konpontzeko lanak eta lehenbailehen bukatzea espero dutela".



**B** asarteko tenis pista ondoko mahaia hondatuta dago: "Asteburuetan gazte asko ibiltzen gara Basarte inguru horretan, eta tenis pista kanpoaldeko mahaia hori ere erabiltzen dugu. Orain, baina, arriskutsu dago. Bere lekutik aterata dago, eta ezin da erabili. Eskertuko genuke konpontzea".

**T** renen ordutegia ez dago ulertzerik: "Tren geltokira joan nintzen udako trenen ordutegia zein zen ikustera, baina kartel hori ez dago ulertzerik. Ordu pila bat jartzen dituzte, astegunetakoak, asteburu eta jai egunetakoak, baina ez dago batere argi Elgoibarren zein ordutan dauden trenak. Eibarrera joan nintzela aprobetxatuta, hango langileari galdetu nion, eta bera ere ez zen kapaz izan ordutegia azaltzeko. Euskotrenen aplikazioa telefonora deskargatzeko esan zidan, eta han argi ikusiko nuela, berak ere horrekin funtzionatzen duela. Horren zaila al da jende guztiak ulertzeko moduan jartzea ordutegia tren geltokian?. Jende guztiak ez dauka aukerarik aplikazioak jartzeko telefonon".



**S** ekulako txakur kaka zegoen martitzen goizean Urazandiko zubian, eta hurrengo egunean ere han segitzen zuen: "Lotsagarria! Sinistu ezinekoo! Astearte goizean sekulako txakur kaka zegoen Urazandiko zubian! Txakur jabe askok ez daukate lotsarik, ezta gainerako bizilagunekiko errespeturik ere! Nola daiteke txakurrak horrelako kaka piloa egin eta bertan lagatzea? Txakurrei buruzko ordenantza berritu beharko luke Udalak, eta isunak gogortu. Askotan badirudi isunekin bakarrik ikasten duela jendeak. Horrez gain, esan nahi dut hurrengo egunean kaka mokordoak leku berean segitzen zuela. Kale garbitzaileek erdigunea sarri-sarri garbitzen dute, baina gaierako auzoekin ahaztu egiten dira".

**K** iroldegiko igerilekuetarako txanda hartu behar izatea, oztopo baino gehiago abantaila bilakatu da: "Covid-19 dela eta, kiroldegiko igerilekuak erabiltzeko txanda hartuzera behartu gintuzten, eta hasieran traba zirudiena, gerora abantaila bilakatu da. Ez da ederra deitu eta lekurik ez egotea, baina ordua hartzen baduzu, aldiz, lekua ziurtatuta duzu. Horrek igerian lasai egiteko aukera ematen du, eta aldageletan ere ez dago jende pilaketarik. Eta gauza bera igerileku txikian. Umeekin joaten diren familiek lasai jolasteko lekua izaten dute, eta horrela gustua ematen du igerilekura joateak. Pandemia hau noizbait amaituko da eta itzuliko gara lehengora, baina arau batzuk, adibidez kiroldegian txanda hartu behar izatearena, betirako mantentzeko modukoa dela iruditzen zait, erabiltzaileen mesederako delako".

## IIOT Gaitasunen Zentroa sortuko dute IMHk eta Ikusik, digitalizazio industrialeko profesionalak eta ikasleak trebatzeko

IMHk, Fabrikazio Aurreratuaren eta Digitalaren Campusak eta Ikusik, negozioen eraldaketa digitalizatuan espezializatutako enpresak, lankidetzahitzarmen bat sinatu dute digitalizazio industrialeko prestakuntza-zentro bat sortzeko. Zentro berri honekin IMHko ikasleek nahiz enpresa industrialek IIOT (Gauzen Internet Industrial) arloan trebatu ahal izango dira. Aldi berean, digitalizazio-prozesuetan aurrera egin nahi duten enpresentzat erakustoki izango dela zehaztu dute. IMHtik jakinarazi dutenez, IIOT Gaitasunen Zentro berriak teknologia horiek makinetan aplikatzeko profesionalak prestatuko ditu, eta enpresetan produkzio-prozesuak hobetzea bultzatuko du.

Ikusi eta IMHren arteko lankidetzahitzarmen hau bi erakundeen arteko lankidetzahitzaren ondorengo pausoa dela nabarmendu dute, izan ere, azken urteotan elkarlanean aritu izan dira bi erakundeak. Ixaka Egurbide IMHko zuzendari kudeatzailearen hitzetan, kompetentzien zentro hau aurrerapausoa da digitalizaziorako IMHren apustu estrategikoan eta, Ikusi bezalako enpresa erreferenteekin lankidetzan, euren Fabrika Digitalari balioa gehitzen jarraitzen dute, ekosistema aurreratu gisa, etorkizuneko profesionalak prestatzeko eta gaitzeko nahiz enpresen garapen teknologiko eta digitalera bultzatzeko.



### Pedro Mugurutza kaleari izena aldatzeko prozesuan parte hartzerantz animatu ditu herritarrek EH Bilduk

Joan zen astean jakinarazi zuen Elgoibarko Udalak Pedro Mugurutza kaleari izena aldatzeko prozesua hasiko dutela irailean, eta "pozik" hartu du berria Elgoibarko EH Bilduk. EH Bildutik adierazi dute Elgoibarren memoria historikoaren legea betetzeko beste urrats bat emango dela Pedro Mugurutza kaleari izena aldatzean, eta herritarrek animatu nahi dituzte prozesuan parte hartzerantz. Nabarmendu dutenez, urte bukaerarako Elgoibarko kaleetatik frankismoarekin lotura daukaten sinboloak ezabatuko dira: "Kostatu zaigun arren, poztekoa da benetan azkenean aho batez lortu izana prozesua martxan jartzea. Horrela, gure aspaldiko aldarrikapen bat gauzatu dela ikusiko dugu. Ez da erraza izan, eta bidea luzea izan da, baina azkenik lortuko dugu bilatzen genuen erreparazioa". Elgoibar 1936 taldearentzat ere berri "pozgarria" izan da. Elgoibar 1936 taldekoek sorreratik, eta sarritan, eskatu dute Pedro Mugurutza etorbidearen izena aldatzea, eta prozesua hastera doala jakitea poztekoa izan dela adierazi dute.



### Ikastolako garbitzaileen kontrako irainak eta bestelakoak gaitzetsi dituzte Mendaroko Udalak eta Arno Guraso Elkarteak

Mendaroko Ikastolako garbitzaileek jaso dituzten irainak, haien kontrako pintaketak eta bazterrak zikindu eta langileei propio lan gehiago eman nahi izana gaitzetsi dute Mendaroko Udalak eta Arno Guraso Elkarteak. Udaletik herritarrei arduraz eta errespetuz jokatzeko eskatu diete guztienak diren zerbitzu eta azpiegiturekin, bai eta horiek behar bezala egon daitezen lan egiten duten pertsonekin ere. "Mendaro errespetuan oinarritutako herria da, eta gizalegez jokatu behar dugu, urkoa, langileak eta gure erakunde zein eragileak errespetatuz. Ardura eta errespetua, mesedez, gure bizitzan errazagoa izateko lanean dihardutenei". Arno Guraso Elkarteak ere txarretsi ditu erasoak eta babesak eta elkartzuna agertu diete iraindutako emakume langileei. "Era honetako erasoak onartezinak dira, lekuz kanpokoak guztiz, eta Mendaroko guraso elkartetik babesak agertu nahi diegu gure hezkuntzako komunitateko parte diren emakume langile hauei. Elkarrekiko errespetuan bizi gaitezen".





## Legealdiaren lehen bi urteak “emankorrak” izan dira Elgoibarko PSE-EEren ustez

Legealdi erdiaren balorazioa egin du Elgoibarko PSE-EE alderdiak, eta “pandemiak baldintzatutako legealdia” izan dela esan badu ere, azken bi urteetan egindako lana “emankorra” izan dela adierazi du Ariana Nogales zinegotziak. “Alderdi politiko guztiok bat egin dugu krisi ekonomiko eta sanitario honen aurrean. Modu eraikitzailean eta arduratsuan lan egin dugu, Elgoibar eta gure bizilagunak aurrera aterata daitezkeen, ahal den azkarren, eta inor atzean utzi gabe”, esan du PSE-EEko zinegotzi Ariana Nogalesek. Nogalesek Fernando Suarez alderdikidea ordezkatu zuen duela hilabete batzuk, eta horrez gainera, bigarren alkateordea eta langileen eta giza baliabideen ardurako zinegotzia ere bada Elgoibarko Udalean. Nogalesek azpimarratu du Elgoibarko familiei eta merkataritza zein ostalaritza sektoreei laguntzeko neurriak hartzeraz bideratu dituztela legegintzaldi honetako ahaleginak, pandemiak eragindako ondorio larriak arintzeko asmoarekin, eta bere ustez, egoerari aurre egiteko ezinbestekoa izan da PSE-EEren eta EAJren arteko gobernu akordioa: “Gobernu akordiorik gabe eta Alderdi Sozialistak egiten duen ekarpenik gabe, ez zen posible izango gobernagarritasuna, bizi izan ditugun egoera latzei aurre egiteko”, esan du Nogalesek, eta gogorarazi du gobernu taldearen azken ekintzek “sozialisten zigilua” dutela. Bestek beste, Urazandiko igogailua, King Kongeko zubia hobetzeko proiektua eta herri barruko autobus zerbitzua aipatu ditu.



## Kuadrillan eta konektatuta hasi dute uda Nuala Elkarteko gazteek



Aniztasun funtzionala duten pertsonen eta haien gurasoen osatzen dute Nuala elkarte eta udarako antolatutako jardueren berri eman dute ([www.nualaelkartea.org](http://www.nualaelkartea.org)). Kuadrillan hasiko dute aurten elkarteko gazteek uda. Batetik, Oriara joaten hasi dira arraunean egiteko, eta bestetik, zaldi-terapia saioak ere programatu dituzte irailerako eta urriarako. Uztaierako eta abuzturako, berriz, *Udako gazte kuadrilla* izeneko ekimena antolatuta dute, estreinakoz. Programa horren baitan, aniztasun funtzionala duten inguruko gazteak elkartu nahi dituzte. Astean hiru egunez batuko dira gazteak eta begiraleak, udan ohikoak diren planetarako: hondartzara joan, Mintxetara igo... Nualatik nabarmendu dute proiektu horiek gauzatzeko ezinbestekoa izan dutela zenbait erakunde eta enpresak emandako babes eta eskerrak eman dizkiete honakoek: Elgoibarko Udaleri, Danobat Groupi, CaixaBanki, La Caixa Fundazioari eta Elgoibar Ikastolari. Kuadrillan eta konektatuta ere hasiko dute uda, baina, Nualakoek. Izan ere, Caixa Bankek egindako diru ekarpenari esker, Nualako familia bakoitzak tablet bat jaso du eta haiei esker Orange Fundazioak aniztasun funtzionala dutenen arteko komunikazioa errazteko sortutako aplikazioak erabili ahal izango dituzte. Guzti horrez gain, Bizipoza Elkartearekin ere bat egin du aurten Nualak. Irabazi asmorik gabeko gizarte ekintzako proiektua da Bizipoza, izaera bereziko arloak lantzen dituzten haurren eta familien ongizatea lortu nahi duten elkartei laguntza afektiboa eta materiala emateko helburuarekin sortutakoa. Eta bat egite horren barruan bideo bat ere sortu dute [Bizipoza.eus](http://Bizipoza.eus) webgunean ikusgai dagoena.

## Herri barruko autobus zerbitzuarekin zer lortu nahi duen galdetu dio Gaugerroa-Duintasunak Udalari eta doakoa behar lukeela esan dio

Udalbus zerbitzua martxan jarri izana txalotu dute Gaugerroa-Duintasunetik, baina zerbitzu horrek debaldekoa izan beharko lukeela jaso dute, batez ere pentsio apalak dituzten erretiratuentzat eta langabeentzat. Bestetik, zerbitzu horren helburuez galdetu diote Udal gobernari. Gaugerroa-Duintasunekoek uste dute presio soziala "isiltzeko" jarri duela martxan Udalak udalbusa, "baina irizpiderik gabe, gogorik gabe eta oso gustu gutxirekin". Haien ustez, lau hilean 12.000 erabiltzaileen kopurua hamar aldiz biderkatzea izan beharko luke helburuak. Gero eta gehiago erabiltzea alegia, eta horretarako, zerbitzuak "duina" izan behar duela jaso dute: "Badirudi proposatutakoa porrot egiteko dela, hemendik bi urtera zerbitzua ez dela erabiltzen esatea bilatzen dutela. Uste dugu Elgoibarko Udalak erabilera sustatu behar duela eta ez alderantziz". Nabarmendu dute autobus zerbitzuak herriko ekonomia eta merkataritza aktibatzeke balio behar duela, eta baita herritarrek autoa gutxiago hartzeko ere, adibidez Mintxetara joateko. Horren harira, haurrak dituzten familientzako bonoak edota urte osorako abonusistematik aurrekusi duten galdetu diete Udalari: "Bi seme-alaba dituen familia batek egunean zortzi euro ordaindu beharko ditu Mintxetatik gora eta behera badabil. Logikoa iruditzen zaizue? Urte osorako abonusistematik inplementatuko duzue? Nola kudeatuko duzue? Edo ez da geldialdirik egongo Mintxetan?".

Lurraldebusen zerbitzuaz ere galdera egin dute. Altzola eta Sigma auzoen arteko tiketaren kostuaren inguruan Aldundiari proposamenik egin dioten galdetu diote Udalari eta tarte horretan zerbitzuak doakoa izan beharko lukeela esan diote.



## LGTBIQ+ Nazioarteko Egunaekin bat egin dute Mendaro zein Elgoibarko Udalek



LGTBIQ+ Komunitatearen Nazioarteko Eguna izan zen ekainaren 28an, eta Elgoibarko zein Mendaroko Udalek bat egin zuten egun horrekin. Mendaroko Udalak adierazpen instituzionala ere kaleratu zuen, "eskubideak eta bizikidetzak aldarrikatuz, aniztasunetik abiatuta". Elgoibarren, bestalde, ortzadarraren irudia bistaratu zuten hainbat Udal erakinetan: Aita Agirreko harmailak ortzadarraren kolorezko oihalekin estali zituzten, eta Kultur Etxeko leihotik ere ortzadar luze bat zintzilikatu zuten, LGTBIQ+ kolektiboari babesa adierazteko.

## Mendaroko II. Berdintasun Planerako ekarpenak egiteko bilera uztailaren 5ean

II. Berdintasun Plana osatzen dihardu Mendaroko Udalak, eta prozesu parte-hartzaile bat hasi du herritarrekin gaia lantzeko. Lehenengo saio bat egin zuten eta uztailaren 5ean izango da bigarren zaioa, udaletxeko pleno aretoan, 18:00etatik 20:00etara.

## Udako ordutegia, Udal Liburutegian

Gotzon Garate Udal Liburutegiak Udako ordutegia dauka. Uztailaren 30era arte, goizez bakarrik egongo da zabalik, 8:00etatik 14:00etara.



## ▶ Espainiako II. Errepublikara garaian kontsula izan zen Pedro Lekuona elgoibartarraren berri eman du Elgoibar 1936 taldeak

**Diplomazialaria eta idazlea izan zela jaso dute Auñamendi entziklopedian, baina Elgoibarren galdezka hasiz gero, inork gutxi jakingo du Pedro Lekuona Ibartzabal nor izan zen. Asteon eman du haren berri Elgoibar 1936 taldeak, memoria historikoa berreskuratzeko lanean ari den taldeak, eta haiek bildutako informazioa da orrialde honetara ekarri duguna.**

- AINARA ARGOITIA -


Elgoibar 1936 taldetik aitortu dute eurek ere oraintxe izan dutela Pedro Lekuonaren berri, eta gehitu dute: "Ezjakintasun hori ez da kasualitatez izan, gerra galdu zutenen taldekoa zelako Pedro Lekuona Ibartzabal elgoibartarra".

1897. urteko urtarrilaren 12an jaio zen, Elgoibarren. Ramon Lekuonak eta Geronima Ibartzabalek izan zituzten bost seme-alabetan gazteena zen: Maria Pilar (1884), Justino (1886), Leonor Justa (1891), Karmelo (1894) eta Pedro bera (1897). Abokatu eta diplomazialaria izan zen ofizioz, baina baita idazlea eta itzultzailea ere. Ezkondua zegoen, baina ez dute lortu norrekin jakiterik, eta horrek zaildu die Elgoibar 1936koei haren senideak topatzea. Abokatu ikasketak 1921-22. ikasturtean amaitu zituen eta diplomazialari talderako oposizioak egin zituen ondoren. Oposizioak gaindituta, Londresera bidali zuten lanera lehenengo, eta Revalera [Gaur egun Estoniako hiriburua dena] lekuz aldatu zuten gero. Baina Espainiako II. Errepublikaren kontsulorde ere izan zen Shanghai (Txina), 1923. urtean

### 36ko gerran, galtzaile

Kanpoan asko ibilitakoa bazen ere, Errepublikaren aurkako 1936ko altxamendu frankistak Euskal Herrian harrapatu zuen Pedro Lekuona. Bilbon bizi zen sasoi hartan, Estazio kaleko 12. zenbakian, eta anaia zaharrena ere, Justino, etxe berean bizi zuen. Errepublikaren II. Gobernuarentzat lan egindakoa izanda, altxamendua gertatu eta gutxira Baionara ihes egin zuen Pedrok, eta han kontsul lanetan jardun zen. Frankistek egindako epaiketa baten agirian topatu dute haren inguruko informazioa. Honela dio idatziak hitzez hitz, gaztelania garbian. "Honako destino hauek bete zituen, betiere Gobernu Gorriaren aginduetara: 1936ko uztailaren 18an, bigarren mailako idazkari gisa, Estatu Ministerioan; 1936ko abuztuaren 7an, Baionako kontsulatuaz arduratu zen, eta urte bereko urriaren 14an, kontsulatu berean, bitarteko lehen mailako idazkari izendatu zuten; 1938ko martxoaren 9an, Bordeleko kontsulatura eraman zuten, eta han, hilaren 22an, kargua hartu zuen. Azkenik, 1938ko ekainaren 4an, aldi baterako hirugarren mailako ministro ahalguztidun izendatu zuten, Washingtingo enbaxadako kontseilari, eta urte bereko uztailaren 9an karguaz jabetu zen".

**Ramon Lekuona eta Geronima Ibartzabalen bost seme-alabetan gazteena izan zen Pedro**



Agirietan jasotakoaren arabera, 1944. urtean, Pedroren anaia Karmelo Bilboko epaitegira deitu zuten anaiagatik galdetzeko. Pedro aniaz ezer ez zekiela deklaratu zuen Karmelok, Ameriketara joana zela arrazoituta [Frankistek epaiketa egin zioten, nahiz bera ez zen epaiketan izan, eta 5 urteko inhabilitazioa eta 25.000 pezetako isuna ezarri zioten]. Gauza jakina zen Washingtonetik Buenos Airesera joan zela eta han ere kontsul lanak bete zituela Espainiako errepublikarentzat.

Idazle eta itzultzailea ere izan zen, baina, Pedro Lekuona. Losada eta Sudamericana argitaletxeentzat aritu zen lanean, baina itzulpen lan guztiak Pedro Ibartzabal ezizenez sinatu zituen. Besteak beste, Richard Llewellynen *How green was my valley* (*Qué verde era mi valle*) eta Ernest Hemingwayren *To have and have not* (Tener o no tener) lanak eman zituen gaztelaniaz.

Informazio hau osatu dezakezula uste baduzu, jarri Elgoibar 1936 taldekoekin harremanetan: 605 772 285.



▶ **LEIRE URKIZA**  
 FILOLOGIA HISPANIKOAN  
 LIZENTZIATUA ETA BIDAIARIA

*Leire Urkiza, Sidney, lehenengo bizileku izan zuen hirian.*

# “Eman didan askatasuna da Australiatik gehien gustatzen zaidana”



Filologia hispanikoa ikasi zuen Leire Urkizak (Mendaro, 1993) Gasteizen eta Australiara abiatu aurretik irakasle aritu zen Iruñean. 2018ko urrian iritsi zen antipodetara, eta geroztik, makina bat abentura bizi izan ditu. Ikasi eta lan egiteko aukera eskaini dizkio Australiak, bai eta kultura ezberdinetako jendearekin harremantzeko aukera ere. Duela gutxi, furgoneta bat erosi, eta Australiaren ertz guztia egitera abiatu zen Lornetik. Zortzi bat mila kilometroko bidea osatua du, baina falta du oraindik zatia. Australia iparraldean dago orain, uda betean, eta presarik ez du. Lelo bat dauka: bihar iritsiko da, baina gaur, gaurkoa gozatu behar da.

- AINARA ARGOITIA -

◆ **Bada denbora Mendaro utzi eta Australiara abiatu zinenetik. Zergatik Australia?**

Kuriositate handia piztu izan dit beti Australiak. Literalki munduaren beste puntan dago eta horrek exotikotasun puntu bat ematen diola iruditzen zitzaidan. Beti entzun izan nuen lan asko zegoela Australian eta erraza zela lana topatzea. Hara joan aurretik, irakasle lanetan ibili nintzen Euskal Herrian eta gustatu zitzaiz-

dan, baina urtebeterako Australiara etortzeko tentazioa sortu zitzaidan. Bai, hasieran, urtebeterako nentorren. Momentu horretan ez nuen inolako konpromiso edota loturarik Euskal Herrian, beraz kanpora joateko momentu paregabea zela iruditu zitzaidan: egunerokotasunetik irten eta ingelesa ikasteko aukera ezin hobea. 2018ko urrian iritsi nintzen Australiara eta hemen jarraitzen dut oraindik. Sydneyn izan nuen nire lehenengo bizilekua eta

bertan pasatu nituen lehenengo zazpi hilabeteak. Askok gustatu zitzaidan, baina ordutik aurrera hiri edota herri txikiagoak aukeratu ditut bizitzeko. Bertan izan dut australiarren benetako bizimodua eta kultura ezagutzeko aukera.

◆ **Zer beste zenekien Australiaz horako bidea hartu aurretik?**

Hona etorri aurretik ez nekien gehiegi Australiari buruz. Uste dut mundu guztiak duen irudia nuela: hondartza politak eta



surfa direla nagusi, animalia arriskutsu asko daudela eta klima ezin hobea dela. Hona iristean konturatu nintzen zein handia den Australia eta zenbat klima desberdin dauden. Iparraldean, esate baterako, klima tropikala da nagusi, baina hegoaldean elurra ikusteko aukera ere izan dut.

◆ **Nolakoa da horko kultura? Zer egin zaizu deigarriena?**

Hemengo bizimoduaren inguruan esango nizuke australiarrek badakitela eguna aprobetxatzen. Goiz esnatzen dira, eta jende asko kirola egitera irteten da, lanera joan aurretik. Bizimodu nahiko lasaia eta erlaxatua dute eta zaila da australiar bat lanagatik estresatuta ikustea. Gehien gustatzen zaidan gauzatariko bat Australiak eskaintzen duen segurtasuna da. Sekula ez dut beldurrik sentitu, ezta emakume izateagatik ere. Lapurretak ere ez dira batere ohikoak hemen, eta jendea lasai bizi da oro har.

◆ **Nolakoak dira bizi-baldintzak?**

Australia herrialde garestia dela esango nuke, baina esan beharra dago lanpostu asko daudela eta orokorrean soldatak oso onak direla. Beraz, diru asko irabazi daiteke, baina gastatu ere erraztasun handiz gastatzen da.

◆ **Nola bizi zara zu hor? Zertan aritzen zara?**

Australian askotariko lanak izan ditut. Batez ere, ostalaritzan aritu naiz lanean. Baina hemen, bakarrik zaudenean, edozein lani heltzea tokatzen da. Adibidez, nekazaritza alorreko lanetan jardun nintzen zenbait hilabetez. Horri esker, bigarren urte baterako bisa lortu ahal izan nuen. Australia oso handia da bizi den jende kopuruarentzat. Hemen bertakoek, gainera, ez dute nahi izaten leku apartatu edo isolatuetara joaterik lanera, eta ezta nekazaritzan, arrantzan edota metzaritzan lan egiterik ere askotan, eta Gobernuak, sari gisa, bisa beste urtebetez luzatzeko aukera ematen die ni bezala atzeritik etorri eta gutxienez hiru hilabetez lan horietan aritzeko prest gaudenoi. Guretzat primerako aukera da, eta Gobernuarentzat ere bai, eskulana behar duelako. Ni neu nekazaritzan jar-

*“Gobernuak bisa urtebetez luzatzeko aukera ematen du nekazaritzan, arrantzan... aritzeagatik”*

dun nintzen hiru bat hilabete pasatxo. Sekula ez nuen imajinatuko horrelako leku batean eta horrelako lanetan arituko nintzenik, baina egia esan, oso esperientzia aberasgarria izan zen. Mahatsa, mandarinak... batzen aritu nintzen,

eta esparragoak ere landatu nituen, esate baterako. Kale-umea naiz, eta sekula aurrez egin gabeko lanak nituen horiek denak, baina asko gozatu nuen. Gogorra ere izan zen, jakina, oso lan fisikoa delako eta ni ez nengoelako prestatuta, baina oso esperientzia polita izan zela ere esan dezaket. Ikaragarri ikasi nuen eta lagun asko egin nituen. Sasoian sasikoa zer den ezagutzeko aukera ere izan nuen, supermerkatuetako apaletan ikusi ohi ditudanak noiz landatu eta noiz jasotzen diren jakiteko aukera, eta gainera, egindako lanari esker dirua aurreztu nuen eta beste urtebeterako bisa ere eskuratu nuen.



*Kalbarri Parke Nazionalean.*

◆ **Euskal Herrira sartu-irten bat egin zenuen, baina bada Australiara lotzen zaituen zerbait itxuraz.**

Bai. Duela urte bat eta hiru hilabete inguru Euskal Herrira itzuli nintzen, sorpresaz, familia eta lagunak ikustera. Bertan nengoela, COVID-19aren inguruko berriak hasi ziren ateratzen egunero. Argi nuen nire bueltako hegaldia aurreratzen ez banuen ezingo nintzela Australiara bueltatu. Nik momentu horretan nire bizitza Australian nuen eta pena izugarriarekin, baina nahi baino aurretik agur esan behar izan nien guraso eta laguneri. Orain perspektibaz ikusita, erabaki egokia hartu nuela uste dut, Australiara bueltan iritsi eta hurrengo egunean muga itxi baitzuen Gobernuak kanpotik gentozen guztiontzat. Hilabete nahikotxo pasatu behar izan nituen konfinatuta, hori izan baitzen Australiako Gobernuaren estrategia. Momentuan gogorra izan bazen ere, gaur egun, normaltasun osoz bizi garelara esan daiteke.

◆ **Zer da Australiatik gehien gustatzen zaizuna?**

Australia herrialde kulturantz da eta munduko edozein herrialdetako jendea aurkitu dezakezu hemen. Esango nuke hori dela esperientzia honetatik gehien gustatu zaidana. Aurreiritzi asko desagertu dira niretzat, kulturalki denok oso ezberdinak garen arren aldi berean gauza askotan oso antzekoak garelako. Orain esan dezaket toki desberdin askotako lagunak ditudala: Latinoamerika, Europa, Asia, Australia... Bestalde, oso aske sentitzen naiz hemen. Inork ez nau ezagutzen eta inoiz ez naiz epaitua sentitzen. Euskal Herritik gehien faltan botatzen dudana harremantzeko dugun modua da. Mahai-inguruko falta igarri-igarrikoa dut, eta lagunekin afari on bat prestatu eta beraiekin elkarrizketa amaigabeak izatea ere bai. Horko janariaren falta ere badut, Australiako gastronomia ez baita hain aberatsa. Kroketak eta urdaiazpikoa baneuzka hemen... Hala, korik ez dago hemen, ez!



*Argyle laku ertza, Australiako iparraldean.*

◆ **Australian ere ez zaude zu geld! Bidaiari zaudela jakin dugu. Nondik nora zabilta orain?**

Bai. Duela bi hilabete inguru furgoneta bat erosi nuen. Hilabete inguru aritu naiz furgoneta egokitzen, bertan eroso bizi ahal izateko. Maiatzaren 10ean Lorne utzi (Australia hegoaldean) eta eguzki bila irten ginen iparralderantz, mendebaldeko kostalde guztia bisitatu. Australiako ertz guztia osatzea da gure asmoa, eta hilabete bakarrean 8.000 kilometro inguru egin ditugu. Australia toki paregabea da furgonetaz edo karabanaz bidaiatzeko edota haietan bizi ahal izateko. Herrialde guztia doan akanpatzeko lekuz beteta dago. Kanpaleku horietan lasai igaro dezakezu gaua dirurik gastatu gabe, eta askotan, gainera, zerbitzu guztiak izaten

*“Atzerrira pausoa emateko beldurrez daudenei esango nieke bizi bakarria daukagula”*

dira: komunak, dutxak... Beraz, furgoneta bat erostea inbertsio handia dirudien arren, etorkizunera begira alokairuan aurreratzeko modu bat ere izan daiteke. Esperientzia izugarria da egunero toki desberdin batean esnatzea eta batetik bestera ibiltzea, dena lotu gabe izanda.

◆ **Makina bati zorrotzuko zitzaizkion haginak zure elkarrizketa irakurrita. Zer esango zenieke atzerrira irten nahi bai, baina ausartzen ez direnei?**

Atzerrira pausoa emateko beldurrez dauden gazte edota ez hain gazte guztiei esango nieke bizi bakarria daukagula. Beldurra eta zalantza izatea normala da, eta oraindik ere egoera askotan beldur puntu bat sentitzen jarraitzen dudala esango nuke. Baina azken finean, munduaren beste puntan nago, bakarrik, eta zalantza eta beldur guzti horiek gainditzek asko erakusten du. Momentu zailak bizitzea normala da, baina dudarik gabe balantzaren gehiago pisatzen dute bizitako momentu on guztiek eta ezagututako lagunek. Mentalitatea asko aldatzen da. Gutxiarekin biziaren ikasten da, egoera desberdinetara moldatzen ere bai, eta,



batez ere, irekiagoak egiten gaitu. Jende asko ezagutzeko aukera ematen du bidaiatzeko eta haiekin enpatizatzen ikasten da. Adibidez, esperientzia honek migrante izatea zer den ulertarazi dit, eta begiak zabaldularazi dizkit. Etorkinek bizi behar izaten dituzten egoera tamalgarriak are ulertezinago zaizkit orain.

♦ **Bi urteko bisa zeneukan, baina denbora hori gainditu duzu. Orain zein egoeratan zaude?**

Bi urte egin nituen *work and holiday* tipoko bisarekin, baina esan bezala, hemengo egoera eta horkoa alderatuta, erabaki nuen momentuan hobe nuela hemengo egonaldia apur bat luzatzea, pandemiaren kontua hor kontrolatua goa izan arte. Hemen, australiarrek itxita dituzte kanporako mugak eta Gobernua ahaleginak egiten ari da herrialde barruko turismoa sustatzeko. Nik bi aukera neuzkan hemen gelditzeko: aukera neukan COVID bisa eskatzeko, horko egoera hobetu arte hemen gelditzeko aukera emango lidakena, baina ez ninduen konbentzitzen, eta bigarren aukeraren alde egin nuen. Ikastaro baterako izena eman nuen eta era horretan lortu dut beste urtebetez hemen gelditzea. Australiako Gobernuak hemen nahi gaitu, berdin dio zertan, lanean edo turismoa egiten, eta horretarako aukera onak ematen ditu. Ikastaroren batean izena ematen dutenei lanerako aukera ere ematen die. COVID-19aren kontuarekin, ikastaroa on-line egiten ari naiz gainera, eta eskolak astean behin bakarrik direnez, bitartean turismoa egiten dihardut. Furgoneta atondu genuen guk geuk oso osoan eta hemen gabiltza, batetik bestera. Zurekin ari naizen une honetan hondartza batean nago. Pentsa!

♦ **Eta nola finantzatzen duzue halako bidaia bat?**

Urritik apirilera Lornen, hegoaldean, egon nintzen, lanean. Uda denboraldia zen eta gogotik egin genuen lan, ahal genuen diru guztia aurrezteko. Eta diru horrekin abiatu nintzen bidaiari. Egia da, baina, hemen bizimodua oso garestia

*“Hor, egonkortasuna baloratzen da, baina hemen ohituago daude aldi baterako langileekin lan egitera”*

dela eta aurreikusten dut nonbait gelditu beharko dudala diru gehiago egiteko. Orain, iparraldean gaude, eta hemen, orain da denboraldi garestia, uda delako. Gustuko lekua topatzen dudanean, topatuko dut lanerako lekua eta geldituko naiz aldi batez lan egiteko. Hori da Australiatik gehien gustatzen zaidana: askatasun hori. Euskal Herrian askoz zailagoa ikusten dut

hori. Hor egonkortasuna baloratzen da, baina hemen ohituago daude aldi baterako langileekin lan egitera, eta horrek aukera ematen digu bidaiariari halako abenturetan sartzeko.

♦ **Herriminik bai? Aurreikusi al duzu itzulera eguna?**

Oso pozik bizi naiz hemen, baina bai, faltan botatzen ditut Euskal Herria eta horko jendea. Hemen, baina, pandemiaren kontu hau nahikoa kontrolatuta dagoela iruditzen zait eta horrek eraman nau bidaia apur bat luzatzeko erabakia hartzera. Baina dudarik gabe, Europar guzok hobetu bezain laster, bueltan izango naiz. Irritikan nago familiakoak eta lagunak berriz besarkatzeko!



Goian, Leire (eskuinean) lagun batekin mahatsa biltzen. Behean, almendro arbola astintzen, eta hirugarren argazkian, esparragoak landatzen.





## Iker Odria gailendu da Antxon De La Arada eta bien arteko erronkan

Lagunarteko erronka moduan sortu zen LaRoita kuadrillako Iker Odriak eta Antxon De La Aradak joan den ekainaren 26an elkarren aurka jokatu zuten kirol proba, baina kuadrillako mugak gainditu zituen eta herriko gazteen artean aparteko ikusmina sortu zuen. Lan handiak aukeratu zituzten indarrak neurtzeko: Mutrikuko portua, Elgoibarko plaza eta Karakate lotu zituen erronka. Mutrikuko portuan 600 metro igerian eginez hasi zuten erronka. De La Aradak 54 segundoko aldea atera zion Odriari. Bizikleta hartu zuten gero eta Kalbarrioko gainera igo ostean, Kalegoen plazan amaitu zuten bizikletako zatia. Elkarrekin egin zuten bizikletako zati ia guztia. Plazara ere bata bestearengandik metro gutxira ailegatu ziren. Plazatik Karakate gaineraino igo ziren, bakoitzak nahi zuen lekutiak. Odria ailegatu zen tontorrera lehena, eta ordu bat 24 minutu eta 50 segundotan osatu zuten proba guztia. Hiru minutu eta erdi gehiago erabili zituen De La Aradak.

### Errebantzarako atea zabalik

Karakateko igoera gogora ekartzen zuten azken metroek. "Herriko horrenbeste gazte ikustea hunkigarria izan da. Une hori betirako gordeko dut nire buruan. Ederra izan da", esan zuen Antxon De La Aradak. Pozik zeuden bi erronkazaleak, gogorra izan zela aitortu zuten biek, baina gustura ziren egindako lanarekin eta are gusturago lagunek erronka antolatzeke egindako ahaleginarekin eta ikusleak pozik ikusita. "Azken hilabeteetako tristura eta gero, halako poztasunen premian gaude gazteok", esan zuen Odriak lehia amaitu ostean lagunek egin zioten elkarrizketan (*barren.eus* webgunean ikus daiteke). Lagunarteko erronka moduan sortu zenak zeresan handia eman duela gaineratu zuen eta kalean askok gelditu zutela erronkaz galdetzeko edo animoak emateko. Lagunek erronka girotzeko eginiko lanak izan du zerikusirik. Kartelez josi zituzten Elgoibar zein Mendaroko hormak eta kontuak sortu zituzten sare sozialetan. Erronka bera ere zuzenean eman zuten Instagrametik, eta 200dik gora jarraitzaile izan zituzten une batzuetan. Unai Astiazaranek, Gartxot Fidalgok eta Gorka Iriondok egin zituzten komentario-lanak, Karakateko antenapean ipini zuten karpantik. Bi kirolarien atzetik zihoazen lagunek hartutako irudiak komentatu zituzten esatariek. Probaren amaieran errebantzarako atea ere zabaldu zuen De La Aradak. "Badaukagu hitz egiteko astia, baina ni prest nago berriro jokatzeko", bota zuen.





## Taldeko jokalariak eta entrenatzaileak prestatu eta koordinatzeko metodologia ezarriko du C.D. Elgoibarrek


Denboraldi berrirako dituzten asmoen berri eman zuen C.D. Elgoibarrek zuzendaritzak joan den barrikuan egin zuten urteko batzar nagusian. Datorren denboraldirako bi erronka nagusi aipatu zituzten: batetik, harrobiaren formakuntza metodologia bat ezarri nahi dute. Mikel Cid ermuarra izango da harrobiko taldeen koordinatzailea eta taldean metodologia ezartzeko arduraduna. Teknikariek lankidetzan estuan arituko da, zelaian bertan, eguneroko lana planifikatzen, egituratzen eta aztertzen. Kirol taldearentzat apostu, aurrerapauso eta inbertsio garrantzitsua izango dela nabarmendu du Jon Basurto presidentek. "Gure ideia beti izan da beheko kategorietan entrenatzaile tituludunak eta esperientzadunak edukitzea, horregatik, datorren denboraldian lehen taldeko entrenatzaile Pablo Turrillas eta Eneko Basurto arduratuko dira alebin, infantil eta kadete guztiei jarraipena egiteaz. Gazte horiek futbol-formakuntza egokia jaso dezatela nahi dugu, eta esperientzia txikiagoa duten entrenatzaileei behar duten laguntza emango diegu", azaldu du. Bere ustez, sistematizazio horrek bermatuko du gazte horiek, kadeteetara eta jubenetara ailegatzen direnean jarraera egokiak edukitzea eta futbol oinarri sendoak izatea. Bestetik, Haundi goiko postuetan sailkatzea izango da klubak denboraldi berrirako bere buruari jarri dion bigarren erronka handia. "Azken urteetan moduan, taldea etxeko jokalariekin eraikitzea da gure abiapuntua, eta apustua: lehen taldean 12-14 bat jokalaria egon behar dira gutxienez. Halaxe izango da denboraldi berrian ere, baina aurrerapauso bat eman nahi dugu", esan du Basurto. Haundi Ohorezko Erregional Mailan sustraituta, egonkor, dagoela uste du zuzendaritzak, eta anbizioa izateko unea dela. "Badakigu mailaz igotzea zaila dela, baina gora begiratzen saiatu behar gara, horretarako eduki dezakegun entrenatzaile egokiena dugulako". Nesken artean izen-emateak izan duen gorakadarekin ere pozik daude futbol taldeko arduradunak: "Nesken futbola indartzeko azken bost urteotan egin dugun ahaleginaren fruituak jasotzen hasi gara. Azken asteetan izen emateak izan duten gorakada harrigarria izan da, eta horren ondorioz datorren denboraldian hiru talde izango ditugu; nagusia, infantilena eta kadeteena. Izugarria da jakinda guk kluba hartu genuenean ez zegoela neskarik futbolean C.D. Elgoibarren, eta orain 80 inguru ditugula. Oso harro gaude". C.D. Elgoibarrek taldearen egoera ekonomikoaren berri ere eman zuen batzarrean. 2020-2021 denboraldian 108.118 euroko gastuak izan ditu eta 105.692 euroko diru-sarrerak, hortaz, 2.425 eurokoa izan da defizita. Urte berezia izan da, eta lehen aldiz, negatiboan amaitu du denboraldia. C.D. Elgoibarrek duen ondarea 97.760 eurokoa da.



Jokalari aipagarrienak: Alex Aizpurua (Kad.), Alex Azpilikueta (Oho. Kad.), Arkaitz Maiora (Jub.), Borja Azpilikueta (Oho. jub.), Garazi Catalan (Emak. nag.) eta Ander Moya (Haundi)

### Eneko Ortega, Euskadiko selekzioarekin

Elgoibarko Laboral Kutxa taldeko txirrindulari Eneko Ortega denboraldi aparta egiten ari da, besteak beste, bigarren egin zuen domekan Bergaran jokatu zuten Gipuzkoako banakako erlojupeko txapelketan, eta Euskadiko selekzioaren deia jaso du orain. Espainiako Txapelketa prestatzeko entrenamendu saioak antolatu ditu Euskadiko Txirrindulari Federazioak eta hamar txirrindulari gazte deitu dituzte horietara, tartean Eneko Ortega. Talde horretatik erdiak hautatuko dituzte uztailearen 16an eta 17an Madrilgo Cadalso de los Vidrios eta San Martín de Valdeiglesias herrietan jokatu duten Espainiako Txapelketan parte hartzeko.



### Sanloren batzar nagusia, uztailearen 9an

Urteko batzar nagusia eginez amaituko du Sanlo kirol taldeak denboraldia. Uztailearen 9an, barixakua, izango da, 19:00etan hasita Kultur Etxeko hitzaldi gelan. Besteak beste honako gaiak landuko dituzte: kirol emaitzak eta aurreikuspenak, balantze ekonomikoak, kuota eta aurrekontua.

## Jordi Quer eta Mireia Badia nagusi, Idotorben jokatuako Enduro Txapelketan



Urnobitza Kirol Klubak antolatutako Elgoibarko Enduro moto lasterketa Euskadiko eta Nafarroako txapelketarako puntuagarria zen eta ehundik gora moto gidari batu ziren, aurreko domekan, Idotorben. Parte-hartzaileek 30 kilometroko ibilbideari hiru itzuli eman behar izan zizkieten, inguruko mendi eta lautadetan barrera. Itzuli bakoitza egiteko ordu eta erdi behar izan zuten gutxi gorabehera, eta itzuli bakoitzean erlojuaren aurkako proba bat osatu behar zuten Idotorbeko baseliza inguruan prestatu zuten zirkuituan. 79 pilotuk bakarrik lortu zuten proba bukatzea. Jordi Quer kataluniarra gailendu zen, Urko Garmendiak lortu zuen bigarren postua eta Peru Irazolak hirugarrena. Emakumezkoetan bi parte-hartzaile lehiatu ziren, eta Mireia Badia izan zen azkarrena. Munduko Enduro txapelketan lehen postuan dago Badia, Laia Sanzekin berdinduta.

### Lorenzo Santolinorekin ikastaroa

Enduro eta rally gidaria da Lorenzo Santolino eta aurtengo Paris Dakar lasterketan seigarren egin du. Enduro ikastaroa emango du Elgoibarren, Urnobotzak antolatuta, uztailearen 3an eta 4an. Parte hartzeko baimena izatea beharrezkoa da edo ikastaroan parte hartzeko baimena eskatzea. 20 lagunentzako lekua egongo da eta 50 euro kobratuko dituzte.

### Javier Ezenarro Oroitzarrea, bihar

Javier Ezenarro Oroitzarrea txirindulari lasterketaren 14. ekitaldia jokatu dute bihar, uztaileak 3, Mendaron. Gipuzkoako txapelketako proba izango da. Mendaroko Txirindulari Elkarteak urtero junior mailako txirindularientzako antolatzen duen lasterketa da, eta guztira, 84 kilometroko ibilbidea osatu beharko dute txirindulariek. Kurutz Gain industrialdean hasi (16:00) eta amaituko da lasterketa, eta industrialdea itxita egongo da, jende pilaketak sahiesteko.



## Etxaniz Memoriala bueltan da

Gure Bide elkarteak antolatzen duen Etxaniz memorialaren 74. ekitaldia bertan behera gelditu zen iaz pandemia dela-eta, baina aurten berriro antolatuko dutela aurreratu dute elkarteak kideek. Ohi moduan, San Bartolome Bezpera Egunean, abuztuaren 23an, jokatu da, 9:00etatik aurrera. Etxanizen oroimenezko txirindulari lasterketak 23 urtez azpiko txirindulari afizionatu onenak batzen ditu, eta aurten ere Lehendakari Torneo entzutetsurako proba puntuagarria izango da. 2019an, jokatu den azken lasterketan, Francisco Galvan Fernandez (Lliça d'Amunt, Barcelona, 1997) txirindularia gailendu zen.







## Mauxitxa txarangaren kontzertuak zabalduko du gaur, 'Kultura Eguzkitan' egitasmoa

**K**ultura Eguzkitan egitasmoa antolatu du Elgoibarko Udaleko Kultura Sailak, eta horren barruan hainbat kultur ikuskizun antolatu ditu uztaileko eta abuzturako. San Bartolome jairik ez da egongo, baina kulturak izango du lekurik uda honetan Elgoibarren. Besteak beste, musika emanaldiak, antzerkiak eta dantza ikuskizunak antolatu dituzte, eta gaur emango diote hasiera egitasmoari, Mauxitxa Band taldearen kontzertuarekin. 19:00etan izango da, Kalegoen plazan.

### Pandemiara egokitutako Mauxitxa

Jendea pilatzea sahiesteko debekatuta daude kalejirak, eta ondorioz, Mauxitxa txaranga ere pandemiara egokitu behar izan du. Urtebete baino gehiago pasatu da Mauxitxak azken kalejira egin zuenetik, eta oraindik ere formatu horretan kalera irteterik ez dutenez, egoera berrira egokitu behar izan dute taldea. Mauxitxa Band sortu dute, eta orain arte inoiz eskaini ez duten formatuan emango dute kontzertua. Eserita ariko dira, eta ikusleak ere eserita egon beharko dira. 18 bat musikari bilduko dira gaurko, eta batzuek gainera, lehenengo aldiz joko dute txarangarekin. Mauxitxaren ohiko errepertoriotik haragoko kantak joko dituzte, eta gehienak pop-rock estiloko musika taldeen abesti ezagunak izango dira. Dozena bat abesti prestatu dituzte, denak txaranga musikariek eurek moldatutakoak. Kanta modernoak eta landuak

izango dira, jendeak gustura entzuteko modukoak.

Urte gogorra izan da guztiarentzat, eta pandemiak txarangari ere eragin dio. Txarangaren 50. urteurren bete-betean iritsi zen Covid-19aren pandemia, eta hainbat ekitaldi bertan behera laga behar izan zituzten. Ezin izan dira entseguetarako bildu, eta denbora luzez egon dira elkarrekin jo gabe. Baimena eman ahal izuli ziren entseguetara, baina gero egoerak berriz okerrera egin zuenez, entseguak eten behar izan zituzten. Etenaldiak musikaliki ez ezik, lagun giroan ere eragina izan du, azken batean, txaranga musika taldea izatez gain, lagun talde bat ere badelako.

Gaurko kontzertu hau berez iaz ematekoa zuten, sanbartolomeetan, baina azkenean iazko egitarautik kanpora laga zituzten musika ikuskizun guztiak. Gabonetara atzeratu zuten ondoren, baina orduan ere ez zen posible izan. Azkenik, gaur irtengo dira kalera urtebete luze baten ondoren, eta "gogotsu" daude Mauxitxako kideak. Kontzertu berezia izango dela aurreratu dute, eta sorpresak ere iragarri dituzte. Ohikoa ez den Mauxitxa ikusteko aukera izango dute herritarrek, baina betikoa ez izateak ez du esan nahi txaranga izango denik. Musikariek ziurtatu dute ilusioz beterik daudela, eta desberdina izan arren, dena ematera irtengo direla. Uste dute herritarrak harritu egingo direla formatu berri honekin: "Gure esku dagoen guztia egingo dugu ikusleek guk adina edo gehiago gozatu dezaten".

## Herriak azken mendeetan izan duen bilakaera erakusten duten panelak jarri dituzte Elgoibarko kaleetan

Elgoibarrek 675 urte beteko ditu 2021eko abenduaren 20an, eta urteurren hori ospatzeko urte guztirako egitasmoa prestatu du Elgoibarko Udalak herriko erakunde, kolektibo, talde eta boluntarioen laguntzarekin. Horien barruan, lau panel informatibo jarri dituzte herriko lau lekutan: XIV. mendeari dagoen panela, udaletxeko alboko fatxadan jarri dute; XV. mendekoa, Lekuederren, eta XVI. mendekoa, Kultur Etxeko fatxadan. Laugarren panela Kultur Etxeko panela da. Bertan, QR kodeen bidez, dorretxearen historia ezagutzeko aukera dago.

Panelak Elgoibar irudikatzen dute XIV., XV. eta XVI. mendeetan. Panel bakoitzean QR kodeak daude, hiribildua nolakoa zen azaltzen dutenak.

Panelekin lotuta, Hiri Gutunari buruzko eskuorri bat ere kaleratuko dute irailean, *Gure herriaren sorrera* izenekoa. Azaroan, berriz, Santa Klarako monasterioari buruz idatzi duen liburua kaleratuko du Javier Elorzak, eta abenduaren 20an Yulen Zabaletaren marrazki liburua txanda izango da: *Yulen, ehun urte*.



### ‘Satorra eta gu’ musika emanaldia bihar, Herriko Antzokian

Elgoibarko Izarrak eta Elgoibarko Udalak antolatuta, *Satorra eta gu* musika emanaldia antolatu dute biharko. Edu Iriondo Mungian bizi den elgoibartarraren bigarren lana da *Satorra eta gu* diskoa, baina lan honetan ere ez da bakarrik egon: Alberto Iriondo (teklatuarekin), Juankar Martin (gitarra) eta Igor Bilbao (baxua) hasieratik egon dira bere aldamenean. Elgoibarko kontzertuan, baina, bateria eta beste ahots batzuk ere izango dira, eta guztira bederatzi lagunek jardungo dute oholtza gainean. 19:00etan izango da kontzertua, Herriko Antzokian. Oraindik badaude sarrerak, eta nahi duenak Herriko Antzokiko lehiatilan erosteko aukera izango du.

### Txoko osagarriak antolatu ditu Elgoibarko Izarrak, abuztuaren 30etik irailaren 7ra bitarterako



Elgoibarko Izarrak Txoko osagarriak antolatu ditu HH2tik LH6ra arteko umeentzat. Abuztuaren 30etik irailaren 7ra arte izango dira, goizez, 9:00etatik 13:00etara. Interesatuak, bi txanda izango dituzte aukeran: abuztuaren 30etik 3ra, eta irailaren 6a eta 7a. Lehenengo txandak 66 euroko prezioa dauka (Elgoibarko Izarrako bazkideentzat 60 euro), eta azken bi egunen prezioa 27 eurokoa izango da (24 euro bazkideentzat). Nahi izanez gero, bi txandak aukeratzea ere badago, 88 euroan (Bazkideek 79 euroan). Antolatzaileek jakinarazi dute plaza mugatuak izango direla, eta izena emateko epea errespetatzeko eskatu dute. Izena emateko azken eguna uztailearen 11 izango da. Informazio gehiagorako 943 741 626 / 643 499 169 telefonoetara deitu edo [kudeaketa@elgoibarkoizarra.eus](mailto:kudeaketa@elgoibarkoizarra.eus) helbidera idatzi behar da.



## Mendaroko Udalak Uemaren 'Bertatik Bertara' kanpainarekin bat egin du, bisitariekin harremana euskaraz bultzatze aldera

**B**ertatik bertara kanpaina hasi du Uemak, turismoan euskara nabarmentzeko eta udan euskararen garrantzia ikusarazteko, eta Mendaroko Udalak bat egin du kanpainarekin. Bisitariak zein bisitariekin harremana duten zerbitzu sektoreko arduradunak eta beharginak euskara aintzat hartzera eta erabiltzera animatzea da UEMA Udalerri Euskaldunen Mankomunitatek abian jarri duen kanpainaren helburua. Horren barruan, jatetxe eta tabernentzako mahai gainekoak banatuko ditu Mendaroko Udalak. Bertako hizkuntza kalitatea eta hurbiltasuna erakusteko ezinbesteko osagaia dela azaldu dute UEMatik eta iazko arrakastaren ondorioz, 300.000 mahai-gaineko banatuko dituzte Uemako kide diren herrietako taberna eta jatetxeetan.

Zenbait oinarrizko esamolde euskaraz zein beste hainbat hizkuntzatan nola esaten diren erakusten dute, koadro baten bidez, bisitariak ere ahotan euskara erabil dezaten. Bisitariak arreta erdaraz eskaintzea bertako hizkuntza alde batera uztea dela nabarmendu dute. Hortaz, euskaraz egin edota gutxienez oinarrizko esamoldeak euskarazkoak izan daitezten gonbita egin diete ostalariei; izan ere, bisitariak sarri adierazi izan dute horren bila jotzen dutela udalerri euskaldunetara. Horretarako, pare bat aholku eman dizkiete. Batetik, lehen hitza eta agurrak euskaraz izatea, eta eskerrak euskaraz ematea. Bestetik, lokaleko zein erabiltzen dituzten komunikazio kanaleko hizkuntza zaintzeko: kartelak, menuak...



### Uxue Alberdi eta Iban Urizar, etorkizuna irudikatzeko fabulen bigarren irakurraldian



Herenegun izan zen Elgoibarko Izarrak, Udalaren laguntzarekin, antolatutako irakurraldi musikatuaren bigarren eta azken emanaldia. Oraingoan herriko bi sortzaile izan ziren gonbidatuak: Uxue Alberdi idazlea eta Iban Urizar musikaria. Alberdik Usurbilgo hirigintza feministaren proiektua eta Txirikorda etxebizitza kolaboratiboaren proiektua fabulatu zituen. Irakurraldiari laguntzeko, berriz, Urizarren musika izan zuen. Kultur Etxeko sotoa bete egin zen eta antolatzaileek esan digutenez, jendea oso-oso gustura irten zen bertatik.

### Aire libreko zine emanaldiak izango dituzte uztailean Mendaron

Udako gabez gozatzeko, Mendaroko Udalak aire libreko zine emankizunak antolatu ditu. Lau film emango dituzte guztira, uztaileko ostiraletan. 22:00etan izango dira emanaldiak, Goñati frontoian. Emanaldiak doan izango dira. Covid-19a dela eta, edukiera kontrolatuko dute, eta beharrezko neurri guztiak hartuko dituzte antolatzaileek, besteak beste, tenperatura hartuko dute eta distantziak zainduko dituzte.

- Uztailak 2: *Sablehortz kapitaina*.
- Uztailak 9: *Horman erlojua duen etxea*.
- Uztailak 16: *Pikachu*.
- Uztailak 23: *Handia*.

**LANA.....**  
**Eskaerak**

Emakume euskalduna eskaintzen da garbiketa lanak egiteko eta adinekoak zaintzeko. Esperientzia eta titulua ditut. Beste edozein lan egiteko ere prest.

☎ 626 490 986

Umeak eta adinekoak zaintzeko eta garbiketa lanak egiteko prest nago.

☎ 612 202 116

Adinekoak zaintzeko eta garbiketa lanak egiteko prest nago. Orduka eta asteburuetan ere lan egiteko prest.

☎ 641 821 288

Neska gaztea, udan umeak zaintzeko prest. Haur Hezkuntza ikasketak eginda. Euskalduna.

☎ 689 61 88 20

Adinekoak zainduko nituzke, orduka edo etxeko langile moduan. Ospitaleetan ere zaintza lanak egiteko prest nago.

☎ 631 465 603

**PARTIKULARRAK.....**

Skate klaseak ematen ditut, hasiberrientzat eta hobetu nahi dutenentzat.

☎ 672 183 313 (Danel Iriondo)

**ETXEBIZITZA.....**

Pisua alokatzen dut San Roken. Bi logela, bi komun eta berogailu zentrala ditu. Etxe atsegina eta polita da.

☎ 660 042 159 (arratsaldez)

ZORIONAK



Argazkiak eguazten eguerdia (12:00ak) baino lehen ekarri behar dira BARRENEKO bulegora, [barren@elgoibarkoizarra.eus](mailto:barren@elgoibarkoizarra.eus) e-postara edo 📞 688 634 044 biddalita.



Zorionak, **Libe**, bihar 5 urte potolo beteko dituzulako. Jarraitu beti bezain alai eta jator. Muxu potolo bat familiakoen, lagunen eta bereziki, Aimarren partez.



Zorionak, **Mikel**, astelehenean 9 urte beteko dituzulako. Muxu bat familiakoen partez.



Zorionak, **Nora**, zure zazpigarren urtebetetzean. Primeran pasa genuen. Muxu handi bat etxekoen partez.



Zorionak, **Paul**, igandean 2 urte beteko dituzulako. Ondo pasa eguna eta muxu handi bat familiakoen partez.



Zorionak, **Lara**, uztailean 5ean 7 urte beteko dituzulako. Eta, **Danel**, zorionak zuri ere abuztuaren 7an 9 urte egingo dituzulako. Muxu asko familiako guztien partez.

 <p>Carrejo Sana de Colinos de Administradores de Finanzas Industria Etxe Administrazioaren Barakale Kondeak</p>  <p><b>ROSA Ma PINTADO</b></p> <p><i>Etxaldean Administrazioarako-Gradu ikasketen arduraduna Alcala de Henareseko Unibertsitatean, eta Gipuzkoa, Bizkai eta Arabako, Errioxako eta Kantabriako ikastetxeetan. Zuzenbidean lizentziatua. Kolegiatu zenbakia: 749</i></p> <p><b>660 969 679</b> <b>rosapf@telefonica.net</b></p>	<p><b>Etxebizitza bat daukat alokairuan utzia eta alokairu kontratuaren arabera maizterrak komunitate gastuak ordaindu behar ditu. Badira hilabete batzuk, maizterrak, komunitate gastuen ordainagiriak bueltan bidaltzen dituela. Jabeen azken batzarrean erabaki zuten ordaindu gabekoak erreklamatu behar zaizkiola. Jakin nahi nuke ea komunitateari eska diezaiokekan zorretan dauden kuotak maizterrari erreklamatzeko.</b></p> <p>Azaldutako egoeran bi harreman daude: batetik, zuk komunitatearekin duzun harremana, eta horren arabera zu derrigortuta zaude komunitate gastuak ordaintzera betebeharra pertsonala delako. Bestetik zuk, alokairu kontratuaren bidez maizterrarekin duzun harremana. Horren baitan bientzako betebeharrak daude. Horietako bat da maizterrak komunitate gastuak ordaintzea horrela adostu baitzenuten kontratuan. Beraz, zuk baino ezin diezaiokezu hori eskatu eta betebeharrak horietaz ezin da komunitatea arduratu.</p> <p><b>Aholkua: Komunitatea etxejabearekin eskatzera baino ezin da mugatu eta honek ezin du aitzakia modura esan etxea alokairuan daukanak ez dituela kuotak ordaintzen. Hortaz, arazoa etxejabearen eta maizterraren artean konpondu behar dute komunitatea albo batera utzita eta hauek elkarri egiten dizkioten erreklamazioez arduratu gabe.</b></p> <p><b>ASESORIA GO/R</b> AHOLKULARI KOLABORATZAILEA San Bartolome, 2</p>
--	---



## 2 BARIKUA

**16:30** Odol ateratzeak Mendaron. Ordua hartzeko: 747 440 060 telefono zenbakira deitu behar da 11:00etatik 15:00etara.

**19:00** Kontzertua: Mautixa Band. Mautixa txarangak kontzertua emango du, Kalegoen plazan.

**19:00** Bideo foruma: 'Locas de alegría'. Haizeak antolatuta, Loredi Saiegik gidatuko du saioa. Kultur Etxeko hitzaldi gelan.

## 3 ZAPATUA

**16:00** Txirindularitza; Javier Ezenarro oroitzarrea, Mendaron.

**19:00** Kontzertua: 'Satorra eta gu'. Edu Irondo elgoibartarrak bere bigarren diskoa aurkeztuko du. Herriko Antzokian.

### Botika ordutegiak 09:00 - 13:00 / 16:00 - 20:00

#### GUARDIAK

**Egunez: 09:00-22:00**

**Iluntzean: 20:00-22:00**

**Larunbatak: 9:00-14:00 (\*)**

2 BARIKUA	3 ZAPATUA	4 DOMEKA	5 ASTELEHENA	6 MARTITZENA	7 EGUAZTENA	8 EGUENA	9 BARIKUA
Egunez <b>* Ibañez</b>	Egunez <b>Garitaonandia</b>	Egunez <b>Garitaonandia</b>	Egunez <b>Arriola</b>	Egunez <b>* Fernandez</b>	Egunez <b>Yudego</b>	Egunez <b>* Oruesagasti</b>	Egunez <b>Barrenetxea</b>
Iluntzean <b>Arriola</b>	Iluntzean <b>Garitaonandia</b>	Iluntzean <b>Garitaonandia</b>	Iluntzean <b>Arriola</b>	Iluntzean <b>Yudego</b>	Iluntzean <b>Yudego</b>	Iluntzean <b>Barrenetxea</b>	Iluntzean <b>Barrenetxea</b>

**\* Fernandez:**  
Herriko Enparantza, 4  
Garagartza (Mendaro)  
943 756 142

**\* Ibañez:**  
Rekalde, 1 (Soraluze)  
943 751 638

**\* Oruesagasti:**  
Kalebarren, 9 (Soraluze)  
943 751 384

**Urte guztian, gauzez: 22:00-09:00**  
Arantzazu Izpizua, Ibarburutze, 7 (Eibar)  
943 201 912

## Abuztuaren 30etik irailaren 7ra TXOKO OSAGARRIAK

- Abuztuaren 30etik irailaren 3ra: 66 € (Elgoibarko Izarrako bazkideek 60 €)
- Irailak 6 eta 7: 27 € (Elgoibarko Izarrako bazkideek 24 €)
- Biak: 88 € (Elgoibarko Izarrako bazkideek 79 €)

- Ordutegia: 09:00 - 13:00
- Plaza mugatuak

- Izen-ematea: uztailaren 11ra arte
- [www.elgoibarkoizarra.eus](http://www.elgoibarkoizarra.eus)
- [kudeaketa@elgoibarkoizarra.eus](mailto:kudeaketa@elgoibarkoizarra.eus)
- ☎ 943 741 626 / 📞 643 499 169





1995

**G**aruko argazki zaharra Izaskun Jauregik lagatakoa da. Korrikaren bederatzigarren edizioan Mendaron egindako argazkia da. Donibane Garazin abiatu zen 1995eko Korrika hura, martxoaren 17an, eta Gasteizen bukatu zen hilaren 26an. *Jalgi hadi euskaraz* izan zen orduko leloa eta Mikel Laboa zena, omendua. Guztira 2.150 kilometrotako ibilbidea egin zuen Korrikak, ordura arteko luzeena, eta Mikel Laboa bera sartu zen lekukoarekin Gasteizko Ama Zuriaren plaza inguruan AEK-ko antolatzaile taldea lagun zuela. Laboak irakurri zuen berak idatzia zuen mezua ere. Korrika ez da edizio guztietan Mendarotik pasatu, baina bederatzigarren hura bai, eta Izaskunen aitak, Valentin Jauregik, eraman zuen lekukoa tarte batez. Ikus ditzagun nortzuk diren argazkiko gainerako lagunak.

**Goian, koskara igota:** Iñigo Zubiaurre, Unai Muñoz, Egoitz Horrillo eta Jurdan Ezenarro. **Goian:** Joxe Jurado, Estibaliz Jurado, Ainhoa Mazarriegos, eta Valentin Eizagirre. **Hirugarren ilaran:** Naroa Arrasate, Olatz Urbizu, Izaskun Loiola, Naiara Eizagirre, Usoa Jurado, Oihana Astorkia, Inma Baena, Miren Horrillo, Jon Larrañaga, Anibal Cotrina eta Ibai Idoeta. **Behean, makurtuta:** Aitor Agirrebeña, Aritz Arrasate, Ainhoa Urbieta, Mikel Mugertza, Dorleta Lazarobaster, Jokin Muñoz, Itxasne Idoeta, Amaia Zabaleta, Beñat Urain, Dorleta Aranberri, Imanol Sorazu, Oier Arizmendi, Aitzol Urain, Eneko Egaña, eta Aitor Larrañaga.




V. URTEURRENA

*Pedro Aguinaco Isusi*

2016ko uztailaren 1ean hil zen, 79 urte zituela.

***Zure oroimena beti izango da gure bihotzetan.***





## *Alfonsa Gonzalez Aranda*

2021eko ekainaren 27an hil zen, 89 urte zituela.

Sendiak bihotzez eskertzen ditu  
jasotako doluminak,  
bai eta hileta elizkizunetara  
agertu izana ere.




## *Pedro Lariz Muguruza*

2021eko ekainaren 28an hil zen, 96 urte zituela.  
Sendiak bihotzez eskertzen ditu jasotako doluminak,  
bai eta hileta elizkizunetara agertu izana ere.

***Izan zarena,  
erakutsi duzun kemena,  
gure artean geratuko da  
zugandik jasotako dena.***

Etxekoak



II. URTEURRENA



## *Arrate Aranguren Urkidi*

*"Beraseta"*

2019ko uztailaren 2an hil zen, 72 urte zituela.

***Zurekin amets, zurekin negar,  
zurekin barre, zurekin musu.  
Gutako bakoitzean bizirik jarraitzen duzu.  
Gugan beti, maite zaitugu.***

Etxekoak





# INPLANTEEN SUSTAPEN BERRIA

Hilean 24 €-tik hasita: inplantea + koroa\*

Udako hilabeteetan bakarrik, ekainaren 21etik abuztuaren 31ra arte.

## UDAKO ORDUTEGIA

Astelehena eta asteartea 13:00etatik 20:00etara / Asteazkenetik ostiralera 8:00etatik 15:00etara.

943 366 377  
[www.dentalaldaz.com](http://www.dentalaldaz.com)



Lasarte-Oria  
Ola kalea, 10

Elgoibar  
San Bartolome, 22

Tolosa  
San frantzisko, 39